

## **2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Gure laguntza lesionatzen den edonori zuzenduta dago. Awen-en, psikologia eta osasun emozionaleko zentro baten, artikulu baten arabera, autolesioen %ñ eta %14 artean 12 eta 20 urte bitarteko pertsonen artean gertatzen da, hau da, nerabeen artean. Nolanahi ere, azpimarratu behar da Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) azken informazioen arabera, 2020. urteari buruzko datuekin, Euskal Autonomia Erkidegoan 184 pertsonak egin zituela beren buruaz beste; horietatik 139 gizonezkoak izan ziren, eta 45 emakumezkoak. Lurraldeka, Bizkaiak 100 suizidio erregistratu zituen; Gipuzkoak, 57; eta Arabak, 27. Badakigu bere buruaz beste egitea eta bere burua zauritzea ez direla gauza bera, baina nork bere burua zauritzea suizidioa ekar dezake, eta hori larriagoa da. Laguntza hau nabarmenagoa izango litzateke zabarkeria, sexu-abusua, abusu fisikoa edo emozionala jasan zuten edo beste gertaera traumatiko batzuk jasan zituzten pertsonentzat. Egoera ez da erraza. Horregatik, erregistro mota hori duen jendeari lagundu nahi diogu.

Hasiera batean gure denda fisikoak EAEn kokatzen hasiko gara, Gasteizen. Gure intentzioa hiri askotara hedatzea da eta laguntza hau mundu osoan eskuratu ahal izatea. Webgunez, edozein lekutara bidaliko ditugu gure arropa.

Gure bezeroek arropa hau eskuratzeko psikologo edo psikiatra batek bideratu behar du, nahiz gizarte segurantzako batek nahiz osasun mentaleko erakunde bateko batek. Honekin lortzen dugu, benetan behar duten pertsonak produktua eskuratzeko, eta ez edonork eskura ditzala kamiseta denbora pasatzeko edo bromak egiteko.

Gure enpresak monopolioa du, merkatuan ez baitago inork honelako produkturik egiten duena. Beraz, guk bakarrik saltzen ditugu, eta jende gehiena horrelako laguntza behartzekotan, guregana joko dute bai ala bai.

